

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

EKIALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Aramaioko (Araba/Alava), Untxilla auzoan kokatuta dagoen Prado Serain iturria iturburutik ur publikoa hartzeko espediente. Ur horrek etxerako, abeltzaintzarako eta ureztatzeko erabilera izango du

Espediente-zenbakia: A-G-2018-0011

Eskatzailea: Jose Martin Lizarralde Garcia-Echave

José Martín Lizarralde García-Echave (NAN/IFK 1**9**65) enpresaren baimena eskatu du, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren babesean, Aramaio (Araba) udalerrian Untxilla auzoan Prado Serain Iturria iturburutik urtean 368 m³ desbideratzeko eta honakoetarako erabiltzeko: etxerako, abeltzaintzarako eta urestatzeko erabilera izango du.

Kutxeta baten bitartez iturbegitik bildutako urak 18 m³-ko depositu batera bideratzen dira, eta handik, Eskoriatzako udal-barrutian, 800 bat metrora dagoen Etxabe-Garaikoa baserriraino bideratzen dira bertan erabiltzeko.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hilabete bateko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baime-naren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Intxaurren kalea 70 – 1º- 20015 Donostia). Espediente-a han egongo da ikusgai.

Donostia, 2019ko urriaren 17a

Ekialdeko Kantauriar Arroen bulegoburua
FÉLIX CANTERO PALACIOS